ORION TREN TURISTIKOAREN ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN AGIRIA	***PLIEGO DE CLÁUSULAS ECONÓMICO-ADMINISTRATIVAS Y TÉCNICAS QUE HABRÁN DE REGIR LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE UN TREN TÚRISTICO EN ORIO***
1.- KONTRATUAREN XEDEA	***1.- OBJETO DEL CONTRATO***
Kontratuaren xedea da Orioko udalerrian ibilbideak egiteko tren turistiko motorizatu eta artikulatu baten bidezko garraio publikoaren zerbitzua kontratatzea.	*El objeto del contrato lo constituye la contratación de la prestación del servicio de transporte público mediante tren motorizado y articulado de carácter turístico para realizar recorridos en el término municipal de Orio.*
Tren turistikoaren zerbitzua jende guztiarentzat izango da, inolako salbuespenik gabe, hala dagokio-eta, zerbitzu publiko izaera duelako. Zerbitzua aldatu ahal izango da, beharrezkoa den neurrian, dagoen eskariaren arabera edo egoerak hala eskatuta.	*El servicio de tren turístico será prestado al público en general, sin que quepa excepción de ninguna clase ni por ningún motivo, como corresponde a su naturaleza de servicio público, y podrá modificarse en la medida que sea necesario, en función de la demanda o cuando las circunstancias lo exijan.*
2.- ERREGIMEN JURIDIKOA	***2.- RÉGIMEN JURÍDICO***
Egingo den kontratua zerbitzutako kontratu misto modura sailkatzen da, eta honako arau eta lege hauen menpe garatuko da: azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena (17. artikulua); 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duena, horrek indarrean dirauen bitartean; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena; edo horiek ordezkatuko dituzten erregelamenduzko arauak, eta klausula Tekniko-Administratibo Partikularren Agiri honetan jasotako klausulak. Espediente arrunta tramitatuko da, kontratua prozedura ireki sinplifikatu bidez adjudikatzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 159	*La contratación a realizar se tipifica como contrato de servicios de conformidad con lo establecido en el artículo 17 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público (en adelante LCSP), quedando sometida a dicha Ley, así como al Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, en tanto continúe vigente, y al Real Decreto 817/2009 , de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007 de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, o a las normas reglamentarias que los sustituyan (en adelante normativa de desarrollo de la LCSP), y a las cláusulas contenidas en el presente Pliego de Cláusulas Administrativas y Técnicas Particulares. Se tramita expediente ordinario para la adjudicación del contrato*

artikuluan xedatutakoaren arabera.	*mediante procedimiento abierto simplificado, según lo dispuesto en el artículo 159, de la LCSP.*
SPKLren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, kontratazioaren arloko eskumena alkateak du, hargatik eragotzi gabe zuzenbidearen arabera egin daitezkeen ordezkotzak.	*De acuerdo con lo establecido en la Disposición Adicional Segunda de la LCSP, la competencia en materia de contratación corresponde al alcalde sin perjuicio de las delegaciones que conforme a derecho se haya podido efectuar.*
Organo horri dagokio kontzesioa adjudikatzea, interpretatzeko ahalmena, exekuzioak sortzen dituen zalantzak argitzea, aldatzea, etetea, garaia baino lehen suntsiaraztea interes publikoko arrazoiengatik, eta kontzesioa azkentzea erabakitzea, baldintza-orri honetan eta aplikatzekoa den araudian ezarritakoari jarraituz. Era berean, ondare-legeriak ondasunak defendatzeko ematen dizkion prerrogatibak ere badagozkio.	*Corresponde a dicho órgano adjudicar la concesión, la facultad de interpretarla, resolver las dudas que ofrezca su ejecución, modificarla, suspenderla, resolverla anticipadamente por razones de interés público y acordar su extinción con sujeción a lo previsto en este Pliego y a la normativa que resulte de aplicación. Igualmente le corresponden las prerrogativas que le otorga la legislación patrimonial para la defensa de sus bienes.*
3.- INDARRALDIA	***3.- PLAZO DE VIGENCIA***
Kontratuak URTEBETEKO (1) indarraldia izango du, zerbitzua ematen hasteko akta sinatzen denetik, eta ez du izango luzatzeko aukerarik.	*El contrato tendrá una vigencia de UN (1) AÑO desde la firma del Acta de Inicio de la Concesión del Servicio sin posibilidad de prórroga.*
4.- ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK.	***4.- REQUISITOS DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO.***
A) IBILBIDEAK ETA GERALEKUAK:	***A) ITINERARIOS Y PARADAS:***
Zerbitzuak ibilbide hau egingo du:	*El servicio discurrirá por el siguiente itinerario:*
Arrantzale kaletik aterako da, ikastolaren aurrean, eta kale hauetatik pasatuko da: Abeslari, Eusko Gudari, Hondartza bidea eta Arrantzale.	*Salida en Arrantzale kalea, en frente de la ikastola, pasando por Abeslari kalea, Eusko Gudari kalea, Hondartza bidea y llegada a Arantzale kalea.*
Ibilbidea noiznahi aldatu ahal izango du Udalak bere kabuz erabakita.	*El itinerario podrá ser modificado en cualquier momento, por determinación unilateral del Ayuntamiento de Orio.*

Tren artikulatu turistikoaren geltoki nagusia Arrantzale kalean egongo da, ikastolaren aurrean.	*La terminal o parada central del tren articulado turístico se encontrará ubicada en Arrantzale kalea, en frente de la ikastola.*
Geltoki horretan trena geratu ez ezik, gelditu egingo da. Geltoki nagusia noiznahi aldatu ahal izango du Udalak, bere kabuz erabakita. Beste geralekuak hauek izango dira: Bikamiota eta Hondartza.	*Esta parada será de estancia. La parada central podrá ser modificada en cualquier momento, por determinación unilateral del Ayuntamiento de Orio. Las otras paradas serán: Bikamiota y Hondartza.*
B) USTIAPEN-ALDIA ETA MAIZTASUNAK	***B) PERIODO DE EXPLOTACIÓN Y FRECUENCIAS***
Zerbitzua 2024ko ekainaren 24tik irailaren 8ra arte (biak barne) emango da, egunero.	*El servicio se prestará desde el 24 de junio de 2024, hasta el 8 de septiembre de 2024 (ambos inclusive), durante todos los días.*
Zerbitzuaren gutxieneko maiztasuna hau izango da: joan-etorri bat 30 minuturo.	*El servicio se prestará con una frecuencia mínima de 30 minutos entre cada expedición.*
Zerbitzua egunero emango da ordutegi honetan: 11:30etik (lehen irteera geltoki nagusitik) 14:00era (geltoki nagusira iritsi), eta 16:00etik 20:30era (iritsi geltoki nagusira).	*El servicio se prestará diariamente desde las 11:30 horas (primera salida desde la parada o terminal) hasta las 14:00 horas (llegada a la terminal), y desde las 16:00 hasta las 20:00 (llegada terminal).*
Lizitatzaileek proposa dezakete gutxieneko ordutegia zabaltzea edo murriztea, baina Orioko Udalak baimendu beharko du, aldez aurretik, berariaz eta idatziz.	*Los licitadores podrán proponer la ampliación o reducción del horario mínimo, ampliación o reducción que deberá ser autorizada por el Ayuntamiento de Orio, previa, expresamente y por escrito.*
C) BIDAIARIAK GARRAIATZEKO IBILGAILUEN EZAUGARRIAK	***C) CARACTERÍSTICAS DE LOS VEHÍCULOS PARA TRANSPORTE DE PASAJEROS***
I. DOKUMENTAZIOA	***I. DOCUMENTACIÓN***
Kontratua sinatzen denean, kontratistak ibilgailuen dokumentazio tekniko hau aurkeztu beharko du:	*En el momento de la firma del contrato el contratista deberá aportar la siguiente documentación técnica de los vehículos.*

ORIOko UDALA
Herriko plaza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

T. 943 83 03 46 F. 943 13 0260
idazkaritza@orio.eus orio.eus
CIF/IFK: P-2006600-G

• Ibilgailuaren aseguru-polizaren ordainagiria, asegurua indarrean dagoela frogatzen duena. • Ibilgailu publikoak garraio bereziko erregimenean zirkulatzeko nahitaezko erantzukizun zibileko aseguru-polizaren ordainagiria, asegurua indarrean dagoela frogatzen duena; aseguru-poliza horrek estali behar ditu zerbitzuaren funtzionamenduaren ondorioz hirugarrenei sor dakizkiekeen kalte-galerak. • Bidaiarien aseguru gehigarria. • Indarrean dagoen ibilgailuen azterketa teknikoaren txostena (IAT), edo ikuskapen hori egitetik salbuesten duen dokumentazioa. • Ibilgailuaren fitxa teknikoa. Dokumentazio hori eguneratuta eta indarrean egongo da kontratuak irauten duen bitartean, eta horren berri emango zaio Orioko Udalari. **II. EZAUGARRIAK** Adjudikaziodunak kontratua gauzatzeko erabiliko duen trenak bagoi artikulatuak izan beharko ditu. Zehazki, hiru bagoi izango ditu gehienez. Bagoiek eguraldi txarrerako prestatuta egon behar dute, eta euriaz babesteko elementuak izango dituzte bagoiaren lau aldeetan, bai gidariak eta zerbitzuko erabiltzaileak euri-egunetan uneoro babestuak joan daitezen. Ibilgailuak eskaintzen dituen plaza guztiak eseritakoak izango dira eta, gutxienez, 54 eserleku izango ditu.	• *Recibo en vigor de la póliza de seguro del vehículo.* • *Recibo en vigor de la póliza de seguro de responsabilidad civil obligatorio para la circulación de vehículos públicos en régimen de transporte especial que cubra la responsabilidad frente a terceros en relación con los daños o perjuicios que puedan ocasionarse como consecuencia del funcionamiento del servicio.* • *Seguro adicional Pasajeros.* • *Informe de inspección técnica de vehículos (ITV) en vigor, o documentación que exima de pasar dicha inspección.* • *Ficha técnica del vehículo.* *Esta documentación se mantendrá actualizada y vigente durante la duración del contrato y se dará constancia de ello al Ayuntamiento de Orio.* ***II. CARACTERÍSTICAS*** *El tren a adscribir por el adjudicatario a la ejecución del contrato deberá disponer de vagones con articulación. En concreto, deberá disponer hasta un máximo de tres vagones.* *Los vagones deberán estar preparados para las inclemencias del tiempo, contando con protectores de lluvia laterales y frontales, de tal modo que el chófer y los pasajeros puedan utilizar el servicio en días de lluvia con normalidad.* *Este vehículo deberá contar exclusivamente con plazas sentadas, con un mínimo de 54.*

ORIOko UDALA
Herriko plaza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

T. 943 83 03 46 F. 943 13 0260
idazkaritza@orio.eus orio.eus
CIF/IFK: P-2006600-G

Ibilgailuak umeen aulkitxoak eta gurpildun aulkiak sartzeko arrapala izango du, gutxienez 80 zentimetroko zabalerakoa, eta mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako espazioa izango du. Era berean, trenera sartzeko eskailerek 25 zentimetroko altuera izango dute gehienez. Bagoien barrualdea nahikoa zabala izango da mugikortasun murriztua duten pertsonek zerbitzua erosotasunez erabil dezaten.	*El vehículo contará con rampa de acceso para carritos y sillas de rueda con una anchura mínima de 80 centímetros, contando con un espacio reservado personas con movilidad reducida. Asimismo, las escaleras de acceso al tren tendrán una altura máxima de 25 centímetros. El interior de los vagones será lo suficientemente ancho para que personas con movilidad reducida utilicen en servicio cómodamente.*
Ibilgailuak kontserbazio- eta garbitasun-egoera ezin hobean egon beharko du beti. Enpresaren ardura izango da ibilgailua segurtasun-, kontserbazio- eta garbitasun-egoera onean edukitzea, eta bere kontura izango dira, baita ere, hartu beharreko bestelako higiene-neurri osagarriak.	*El vehículo presentará en todo momento un perfecto estado de conservación y limpieza. La empresa será responsable de mantener el vehículo en perfecto estado de seguridad conservación y limpieza, así como las medidas higiénicas suplementarias que fuera necesario adoptar.*
Adjudikaziodunak gaitasun material eta teknikoa izan beharko du ordezko ibilgailu bat edukitzeko, agiri honetan ezarritako baldintza beretan, gehienez ere 72 orduko epean, zerbitzua luzaroan eten behar izanez gero edozein arrazoi dela-eta.	*Deberá tener capacidad material y técnica para disponer de un vehículo de sustitución en las mismas condiciones marcadas en este pliego en un plazo máximo de 72 horas en caso de que el servicio debiera verse interrumpido de forma prolongada por cualquier circunstancia.*
Ibilgailuak beharrezko baimen guztiak izan beharko ditu eta indarrean dagoen araudian eskatzen diren baldintza guztiak bete. Azken azterketen kopiak aurkeztuko dira.	*El vehículo deberá contar con las autorizaciones correspondientes y cumplir, en todo momento con los requisitos exigidos en la normativa en vigor. Se presentarán las copias de las últimas revisiones.*
D) GIZA BALIABIDEAK	***D) RECURSOS HUMANOS***
Behar bezala gaitutako gidari batek erabiliko du trena. Indarrean dagoen araudiak mota horretako ibilgailuetarako eskatzen duen gidabaimena izango du eta hala akreditatu beharko du, agiri bidez, zerbitzua hasi aurretik.	*El tren será manejado por un/a conductor/a debidamente habilitado y con el permiso de conducción, exigido por la normativa vigente para esta clase de vehículo, debiendo aportar la pertinente acreditación previo al inicio del servicio.*
Enpresak gutxienez bi gidari izango ditu, goizeko eta arratsaldeko txandak betetzeko. Bi gidariek	

gaitasuna izan beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko. Gidariek euskaraz egingo diete lehen hitza trenaren erabiltzaileei eta, hortik aurrera, haiek aukeratutako hizkuntzan jarraituko dute. Enpresak zerbitzuaren koordinatzaile bat ere izan beharko du. Pertsona horrek gaitasuna izan beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan erraztasunez komunikatzeko, ahoz nahiz idatziz. Enpresak bi gidariak kontratatu beharko ditu lanaldi osora, eta bakoitzari ordaindu beharreko gutxieneko soldata 1.946,50 euro gordin hilabeteko izango da. Horiek ziurtatzeko T10 dokumentua edo Udalak bere kasuan eskatuko dizkion bestelako ziurtagiriak erakutsi beharko ditu. Kontratua gauzatzeko enpresariak erabiltzen dituen langileek ez dute inolako lan-loturarik edo bestelako loturarik izango Udalarekin, eta adjudikaziodunak kontratatu beharko ditu, legez dagokien erregimenean edo modalitatean. Adjudikaziodunak zorrotz bete beharko ditu zerga, lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden arauak; eta, betetzen ez baditu, Udalak ez du inolako erantzukizunik izango. Enpresariak segurtasun- eta osasun-arloan egindako ez-betetzeak hutsegite oso larritzat joko dira. Gidaria edo enpresako ordezkari bat Udalak aurkitzeko moduan egongo dira beti, edozein gorabehera jakinarazteko.	*La empresa deberá disponer de al menos dos conductores para suplir los turnos de mañana y tarde. Ambos conductores/as deberán tener la capacidad comunicarse en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca. Los conductores se dirigirán inicialmente en euskera a los usuarios, y a partir de ahí seguirán en el idioma elegido por estos.* *La empresa estará obligada a contratar a los dos conductores a jornada completa, y el sueldo mínimo establecido para cada de ellos será de 1.946,50 euros /mes brutos. La empresa aportará el documento T10 u otros certificados que pudiera pedir el Ayuntamiento para su comprobación.* *Asimismo, la empresa deberá contar con un/a coordinadora del servicio. Esta persona deberá poder desarrollar tales funciones y comunicarse fluidamente, tanto verbalmente como por escrito, en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.* *El personal que el empresario destine a la ejecución del contrato no tendrá vinculación laboral o de ningún otro tipo con el Ayuntamiento, debiendo ser contratado en el régimen o modalidad que legalmente corresponda por el adjudicatario, estando este obligado a cumplir las normas vigentes en materia fiscal, laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo, quedando el Ayuntamiento exonerado de cualquier responsabilidad en caso de incumplimiento. Los incumplimientos del empresario en materia de seguridad y salud serán considerados falta muy grave.* *El conductor o un representante de la empresa deberán estar siempre localizable por el*

Adjudikaziodunak zerbitzurako izendatzen dituen langileak uniformatuta egongo dira, eta ageriko toki batean erakutsiko dituzte «Orioko Txu-Txu trena» hitzak. Uniforme hori Udalak emango die. **E) ADJUDIKAZIODUNAREN BESTELAKO BETEBEHARRAK** Zerbitzuaren segurtasuna bermatu beharko du, eta zorrotz bete beharko du Zirkulazioari buruzko Erregelamenduaren 71. artikuluan eta III. eranskinean xedatutakoa ibilgailu berezien eta garraio bereziko ibilgailuen zirkulaziorako arau eta baldintzei buruz. Trena ustiatzeak dakartzan gastu guztiak (langileak, zergak, lizentziak, tasak, aseguruak...) adjudikaziodunaren kontura izango dira. Adjudikazioduna behartuta dago zerbitzuaren erabiltzaileei erreklamazio-orriak eskura jartzera. **F) UDALAREN BETEBEHARRAK** Udalak euskarri hauek jarriko dizkio enpresa adjudikaziodunari zerbitzua behar bezala emateko: • Zaragueta ikastetxerako sarbidea; zerbitzu bakoitzaren ondoren, tren turistikoa han utziko da. • Trenak zerbitzurako behar duen erregaia. • Datafono bat gidariak joan-etorriko txartela saltzeko. **5.- TARIFAK**	*Ayuntamiento con el fin de comunicar cualquier incidencia.* *El personal que el adjudicatario destine a este servicio deberá ir uniformado y exhibirá en lugar visible el lema «Orioko Txu-Txu trena». Dicho uniforme se lo entregará el Ayuntamiento.* ***E) OTRAS OBLIGACIONES DEL ADJUDICATARIO*** *Deberá garantizarse la seguridad del servicio y habrá que estar a lo dispuesto en el artículo 71 y en el Anexo III del R. G. Circulación, que establecen las normas y condiciones de circulación de los vehículos especiales y de los vehículos en régimen de transporte especial.* *Todos los gastos inherentes a la explotación del tren como personal, impuestos, licencias, tasas, seguros… serán por cuenta del adjudicatario.* *El adjudicatario estará obligado a facilitar las hojas de reclamaciones a los usuarios del servicio.* ***F) OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO*** *El ayuntamiento aportará a la empresa adjudicataria los siguientes soportes para la correcta prestación del servicio:* • *Acceso al centro de Enseñanza de Zaragueta, donde se depositará el tren turístico después de cada servicio.* • *Carburante para el funcionamiento del tren durante el servicio.* • *Datáfono para el cobro del billete ida-vuelta.*

ORIOko UDALA
Herriko plaza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

T. 943 83 03 46 F. 943 13 0260
idazkaritza@orio.eus orio.eus
CIF/IFK: P-2006600-G

Tren turistikoaren garraio arruntari dagozkion zerbitzuak emateagatiko prezioa ordenantza fiskaletan ezarritakoa izango da. Enpresa adjudikaziodunak astean behin aurkeztuko du zerbitzuan jasotako tiketen frogagiria. Publizitatearen tarifak ordenantza fiskaletan ezarritakoak izango dira. Tiketen salmentako eta publizitateko diru-sarrerak Udalak kudeatuko ditu zuzenean. Tiketak eta bonuak Orioko udal-kanpinean, turismo-bulegoan salduko dira. Joan-etorriko txartelak datafono bidez saldu ahal izango ditu gidariak. **6. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA** Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 101. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, kontratuaren iraupen osorako balio zenbatetsia 32.000 eurokoa da, BEZik gabe. Orioko Udalak kopuru hori ordainduko dio adjudikaziodunari, oinarri hauen 4. klausulan aurreikusitako tren turistiko zerbitzuak emateagatik, kontratuak irauten duen denbora guztirako. Zenbateko hori zatika ordainduko zaio enpresa adjudikaziodunari, hilero, behin faktura elektronikoa aurkeztu ondoren. **7.- KAUDIMEN TEKNIKOA** Adjudikaziodun izateko eta kontratua sinatzeko,	***5.- TARIFAS*** *El precio unitario por la prestación de los servicios relativos al transporte ordinario en tren turístico será lo establecido en ordenanzas fiscales.* *La empresa adjudicataria aportará semanalmente documento justificativo de los tickets recogidos durante el servicio.* *Las tarifas por publicidad serán las establecidas en las ordenanzas fiscales.* *Los ingresos por la venta de tickets y por los derivados de publicidad serán gestionados directamente por el ayuntamiento. La venta de los tickets y los bonos se efectuará en la oficina de turismo y el camping municipal de Orio. Los chóferes podrán vender billetes simples de ida-vuelta a través de datáfono.* ***6. VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO*** *A los efectos de lo previsto en el artículo 101 del LCSP, el valor estimado del contrato, para todo el plazo de duración del mismo, es de 32.000 EUROS, IVA no incluido.* *Esa cantidad la abonará el Ayuntamiento de Orio al adjudicatario por la prestación de los servicios de tren turístico previstos en la cláusula 4ª del presente pliego, por todo el tiempo de duración del contrato.* *Esa cantidad será abonada a la empresa adjudicataria en plazos mensuales, previa presentación de factura electrónica.*

proposatutako enpresaburuak baldintza-agiri honetan zehazten diren gutxieneko kaudimen profesional edo teknikoa duela frogatu beharko du. Enpresaburuak gutxieneko kaudimen-baldintza hauek bete beharko ditu: • Lanak edo prestazioak egiteko erabiliko den makineria, materiala eta talde teknikoa adierazten dituen aitorpena. Horrekin batera, kontratazio-organoaren menpeko zerbitzuek eskatzen diotenean, behar diren egiaztagiriak aurkeztuko dira. **8.- FINANTZAKETA** Kontratuaren prezioa ordaintzeko, behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan, 1 1002.227.08.432.50 2024 partidan. **9.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA ETA ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.** Eskaintzak aurkezteak esan nahi du enpresaburuak baldintza-agiri hau osorik onartzen duela, inolako salbuespenik gabe. Orioko Udalaren kontratatzailearen profilaren bidez sartu ahal izango da baldintza-agiri honetara. Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresek hiru gutun-azal itxi aurkeztu beharko dituzte Orioko Udaletxean (Herriko plaza 1, Orio), iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta 20 egun naturaleko epean. Gutun-azal horietan, ondoren adieraziko diren agiriak sartuko dira eta, horrekin batera, enpresaren izena adieraziko da eta, baita ere, eskaintza nork sinatzen duen eta zer izaerarekin.	***7.-SOLVENCIA TÉCNICA*** *Para ser adjudicatario y celebrar el contrato el empresario propuesto deberá acreditar estar en posesión de las condiciones mínimas de solvencia profesional o técnica que se determinan en este Pliego. Los requisitos mínimos de solvencia que deba reunir el empresario serán los siguientes:* • *Declaración indicando la maquinaría, material y equipo técnico del que se dispondrá para la ejecución de los trabajos o prestaciones, a la que se adjuntará la documentación acreditativa pertinente cuando le sea requerido por los servicios dependientes del órgano de contratación.* ***8.- FINANCIACION*** *Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año en curso en la partida 1 1002.227.08.432.50 2024* ***9.- DOCUMENTACIÓN TÉCNICA A PRESENTAR POR LOS LICITADORES Y CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS OFERTAS.*** *La presentación de ofertas presupone la aceptación incondicional por el empresario de la totalidad del presente Pliego, sin salvedad alguna.* *El acceso al presente Pliego se podrá realizarse a través del perfil de contratante del Ayuntamiento de Orio.* *Para participar en la presente licitación, las empresas deberán presentar en el Ayuntamiento de Orio (sito en Herriko plaza 1, Orio), y dentro del plazo de 20 días naturales desde la remisión del anuncio en el perfil de contratante, tres sobres*

Gutun-azalaren atzealdean inskripzio hau agertuko da: «Orion tren turistiko baten zerbitzua kontratatzeko lizitazioan parte hartzeko eskaintza. Prozedura irekia». Lizitatzaileak proposamena postaz bidaltzen badu, justifikatu beharko du zein egunetan egin duen bidalketa posta-bulegoan, eta egun berean jakinarazi beharko dio Orioko Udalari eskaintza bidali duela, telex bidez, fax bidez (943 13 02 60 zenbakia) edo telegrama bidez. Posta elektronikoz ere jakinarazi ahal izango du, *turismoa@orio.eus* helbidera idatzita. Posta elektronikoz bidalitako jakinarazpena baliozkoa izateko, nahitaezkoa izango da konstantzia izatea noiz bidali den, zer adierazi den zehazki eta zein izan diren bai bidaltzailea eta bai jasotzailea. Kasu horretan, kopia inprimatu eta erregistratu egingo da, eta espedienteari erantsiko zaio. Bi baldintza horiek bete gabe, proposamena ez da onartuko, kontratazio-organoak iragarkian adierazitako proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotzen badu. Nolanahi ere, epea amaitu eta hurrengo hamar egun naturaleko epearen barruan proposamena jaso ez bada, ez da inola ere onartuko. Gutun-azalen edukia orri aparteko batean agertuko da, barruan, eta agiri hauek izango ditu: A GUTUN-AZALA. KONTRATISTAREN NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK EGIAZTATZEKO AGIRIAK. - Europako Kontratazio Dokumentu	*cerrados, con la documentación que luego se señalará, indicando en ellos la denominación de la empresa, nombre y apellidos de quien firme la oferta y el carácter con que lo hace.* *En el reverso del sobre figurará la inscripción: «Oferta para tomar parte en la licitación, mediante procedimiento abierto, para la contratación del servicio de un tren turístico en Orio».* *En el caso de que la parte licitadora envíe su proposición por correo, deberá justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de Correos y anunciar al Ayuntamiento de Orio la remisión de la oferta mediante télex, fax (al número siguiente: 943 13 0260 o telegrama en el mismo día. También podrá anunciarse por correo electrónico, a la dirección siguiente: turismoa@orio.eus. El envío del anuncio por correo electrónico sólo será válido si existe constancia de la transmisión y recepción, de sus fechas y del contenido íntegro de las comunicaciones, y se identifica fidedignamente al remitente y al destinatario. En este supuesto, se procederá a la obtención de copia impresa y a su registro, que se incorporará al expediente.* *Sin la concurrencia de ambos requisitos no será admitida la documentación si es recibida con posterioridad a la fecha y hora de la terminación del plazo señalado en el anuncio.* *Transcurridos, no obstante, diez días naturales siguientes a la indicada fecha sin haberse recibido la documentación, ésta no será admitida en ningún caso.* *El contenido de los sobres, que deberá estar relacionado en su interior en hoja independiente, deberá constar de los documentos que se indican a continuación:*

ORIOko UDALA
Herriko plaza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

T. 943 83 03 46 F. 943 13 0260
idazkaritza@orio.eus orio.eus
CIF/IFK: P-2006600-G

Bakarra (DEUC). DEUCren formulario normalizatua, kontratazio plataforman egongo da eskuragarri. B GUTUN AZALA. BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ BALIOESTEKO IRIZPIDEAK. - Proposamen teknikoa. Trenaren ezaugarriak. Gehienez, 40 puntu. Zerbitzuan erabiliko diren baliabide materialak deskribatzen dituen memoria teknikoa. Trenaren antzinatasuna, kilometro kopurua, ezaugarriak, eserleku-kopurua, motorra, estetika, trenaren garaiera, Orioko herri-bideetatik zirkulatzeko egokitasuna… Zerbitzuan erabiliko den trenaren argazkiak erantsiko dira. Txu-txu trena ikuskatzeko eta memoria teknikoko ezaugarriak betetzen direla bermatzeko bisita antolatu ahal izango da. SOBRE C. FORMULEN BIDEZKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK. - Merkeena. Gehienez 60 puntu Proportzionaltasun irizpide bat aplikatuko da, soilik eskaintza ekonomiko txikienari dagokionez: eskaintza horri 60 puntu emango zaizkio, eta gainerako eskaintzak ponderazio-formula honen arabera kalkulatuko dira: 60 x Eskaintza merkeena (BEZik gabe) Eskaintzaren zenbatekoa (BEZik gabe) **10.- PROPOSAMENAK IREKITZEA**	*SOBRE A. DOCUMENTACION ACREDITATIVA DE LA PERSONALIDAD, Y CARACTERÍSTICAS DEL CONTRATISTA.* - *El Documento Europeo Único de Contratación (DEUC) El formulario normalizado del DEUC estará disponible en la plataforma de contratación.* *SOBRE B. CRITERIOS DE VALORACIÓN MEDIANTE JUICIO DE VALOR.* - *Propuesta técnica. Hasta 40 puntos. Memoria técnica descriptiva relativa a los medios materiales que se utilizarán en el servicio. Antigüedad del tren, kilometraje, características, número de asientos, tipo motor, consumo, altura, estética, idoneidad para circular por las vías del municipio…. Se incluirán fotografías del tren a utilizar en el servicio.* *Se podrá organizar una visita de inspección del tren para garantizar el cumplimiento de las características de la memoria técnica.* *SOBRE C. CRITERIOS DE VALORACIÓN MEDIANTE FÓRMULAS.* - *Menor precio. Hasta 60 puntos.* *Se aplicará un criterio de proporcionalidad exclusivamente respecto de la oferta económica más reducida, a la que se le otorgarán 60 puntos calculando la ponderación de las demás ofertas con arreglo a la siguiente fórmula.* *60 x* *Oferta más barata (sin IVA)*

ORIOko UDALA
Herriko plaza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

T. 943 83 03 46 F. 943 13 0260
idazkaritza@orio.eus orio.eus
CIF/IFK: P-2006600-G

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaia bilduko da, eta epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa sailkatuko du («A» gutunazala). Hori egiteko Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 81. artikulua eta hurrengoak jarraituko dira. Aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren eta, horrelakorik balego, ikusitako akats edo hutsuneak zuzendu eta gero, mahaiak zehaztu egingo du zein enpresak betetzen dituzten plegu hauetan finkatutako hautaketa-irizpideak, eta espresuki adieraziko du nortzuk izan diren lizitazioan onartuak, baztertuak eta bazterketaren arrazoiak. Dena dela, eskaintza ekonomikoak jendaurreko egintzan irekitzen direnean irakurriko da guztien aurrean zerrenda hori. Egintza horretan, onartutako enpresa lizitatzaileen «B» gutun-azala irekiko da, eta gutun-azalean sartutako agirien zerrenda irakurriko da. Ondoren, egintza bukatutzat emango da. Jarraian, «B» gutun-azaletako edukia es emango zaio, teknikari eskudunek formula bidez ebaluatzekoak ez diren adjudikazio irizpideei buruzko txostena egin dezaten. Eskatutako txostenak jaso ondoren Kontratazio-mahaia elkartuko da, jendaurrekoa ez den egintzan, eta txostenak baloratu eta enpresa lizitatzaile bakoitzari emango zaion puntuazioa erabakiko du. Kontratazio-mahaiak, JENDAURREKO EGINTZAN elkartuta, enpresa lizitatzaile bakoitzak lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du. Horrez gain, eskaintza onartuak, baztertuak eta bazterketaren kausa edo arrazoiak zeintzuk izan	*Importe oferta (sin IVA)* ***10.- APERTURA DE PROPOSICIONES*** *Vencido el plazo de presentación de proposiciones, se procederá a clasificar la documentación recibida en tiempo y forma (sobre "A"), procediendo, para ello, como se señala en los artículos 81 y siguientes del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. Una vez calificada la documentación presentada, y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones observados, se procederá a determinar las empresas que se ajustan a los criterios de selección de las mismas determinados en este Pliego, con pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación, los rechazados y sobre las causas de su rechazo. En todo caso, dicha relación será leída públicamente en el acto de apertura pública de las ofertas económicas. En el acto no público se procederá a la apertura del sobre "B" (Criterios no cuantificables por fórmula) de las empresas licitadoras admitidas, dando lectura a la relación de los documentos aportados. A continuación, se dará por concluido el acto celebrado.* *Posteriormente se remitirá el contenido de los sobres "B" para que los técnicos competentes emitan informe en relación a los criterios de adjudicación no evaluables mediante fórmula.* *Recibidos los informes solicitados se constituirá la Mesa de Contratación, en acto no público, y valorará los informes y decidirá sobre la puntuación a asignar a cada empresa licitadora.* *La Mesa de Contratación, reunida en ACTO PÚBLICO, comunicará el resultado de la puntuación obtenida por cada empresa licitadora, e informará sobre las proposiciones admitidas, de*

diren ere adieraziko du. Hori egin ondoren, «C» gutunazalak ireki, eta barruan sartuta dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira. «C» gutun-azala irekitzeko jendaurreko egintza Orioko Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako toki eta egunean izango da. Kontratazio-mahaiari beharrezko iruditzen bazaio, «C» gutun-azalak udal-teknikariei bidaltzea erabaki dezake, haiek azter ditzaten eta formula aritmetikoen bitartez ebaluatzekoak diren irizpideei buruzko txostena egin dezaten. Gero, Kontratazio mahaiak kontratuaren adjudikazio proposamena aurkeztuko dio Alkatetzari.	*las rechazadas y causa o causas de inadmisión, procediéndose a continuación a la apertura del Sobre "C" (Criterios cuantificables por fórmulas) y a la lectura de las ofertas económicas contenidas en las mismas. El acto público de apertura de los sobres "C" se celebrará en el lugar y fechas indicados en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Orio. Si la Mesa de Contratación lo considera necesario acordará la remisión de los sobres "C" para que sean analizados por los técnicos municipales y emitan informe respecto de los criterios evaluables mediante fórmulas aritméticas. La Mesa de Contratación elevará la propuesta de adjudicación del contrato a Alcaldía.*
11.- ADJUDIKAZIOA SPKLko 150.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratazio-mahaiak egindako adjudikazio-proposamena onartu ondoren, puntuazio onena lortu duen lizitatzaileari eskatuko zaio Kontratazio Zerbitzuak horretarako errekerimendua egin eta hurrengo hamar laneguneko epean dokumentazio hau aurkez dezan: • Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria. • Gainera, kontratuan eska daitezkeen aseguru-polizen egiaztagiria aurkeztu beharko du. Poliza horiek lizitazioaren aurreko txosten teknikoan zehaztuko dira. Kontratazio organoak BOST LANEGUNEKO epea izango du kontratua adjudikatzeko, dokumentazioa jasotzen duenetik hasita.	***11.-ADJUDICACIÓN*** *De conformidad con lo establecido en el art. 150.2 de la LCSP, una vez que el órgano de contratación acepta la propuesta de adjudicación efectuada por la Mesa de Contratación, se requerirá al licitador cuya oferta haya obtenido mejor puntuación para que en el plazo diez días hábiles a contar desde el siguiente al del requerimiento a tal efecto por el Servicio de Contratación, aporte la siguiente documentación:* • *Justificante acreditativo de hallarse al corriente den el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.* • *Además, deberá presentar el justificante de las pólizas de seguros exigibles en el contrato, que estarán determinadas en el informe técnico previo a la licitación.* *El órgano de contratación adjudicará el contrato en el plazo de CINCO DÍAS HÁBILES, a contar desde la recepción de la documentación.*

12.- KONTRATUAREN ARDURADUNA Kontratuaren arduraduna Turismo-merkataritza eta -ostalaritzako-teknikaria izango da, eta berari dagokio kontratua betetzen dela ikuskatzea, erabakiak hartzea eta beharrezko jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko. Kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak nahitaez bete beharko ditu enpresa kontratistak. Kontratuaren arduraduna gorabeheren akta egiteaz arduratuko da, kontratua betetzean ikusten dituen ez-betetze guztiak salatuz. Orioko Udalak edozein unetan izendatu ahal izango du kontratuaren arduradun berria, enpresa kontratistari jakinarazi ondoren. **13.- ZIGORRAK** Kontratista behartua dago kontratua betetzera plegu honen arabera, indarrean dagoen bitartean. Baldin eta kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, atzeratzen bada, kontratuko prestazioak gaizki betetzen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, Orioko Udalak, bata zein bestea erabaki dezake: edo kontratua suntsiaraztea klausula-orri honen 13. klausulan ezarritakoaren arabera, edo kontratua betetzen jarraitzea. Azken kasu horretan, Udalaren alde bidezkoak diren kalte-galeren kalte-ordainez gain, honako zenbateko hauek ere sortuko dira: Kontratuaren balio zenbatetsiaren %1aren zenbatekoa, kasu hauetan: • Zerbitzua partzialki etetea, bidezko	***12.- RESPONSABLE DEL CONTRATO*** *El responsable del contrato será el técnico de Turismo, Comercio y Hostelería, a quien corresponderá supervisar la ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada.* *Las instrucciones que imparta el responsable del contrato serán de obligado cumplimiento para la empresa contratista.* *El responsable del contrato será el encargado de levantar Acta de incidencias, denunciando cuantos incumplimientos advirtiera en la ejecución del contrato.* *El Ayuntamiento de Orio podrá designar en cualquier momento nuevo responsable del contrato, previa comunicación a la empresa contratista.* ***13.- PENALIZACIONES*** *El contratista quedará obligado a cumplir el contrato durante la vigencia del mismo conforme al presente Pliego.* *Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora, ejecución defectuosa de las prestaciones contractuales o hubiere incumplido cualesquiera otras condiciones contractuales, el Ayuntamiento de Orio podrá optar, indistintamente, por la resolución del contrato, en los términos de la Cláusula 13ª del presente Pliego, o continuar en su ejecución, devengándose, a favor de del Ayuntamiento, adicionalmente a cualesquiera indemnizaciones de daños y perjuicios que procedan, con carácter*

arrazoirik gabe, eta plegu honetan jasotako kontratuko funtsezko betebeharrak ez betetzea. • Ezarritako ordutegiak ez errespetatzea. • Kontsumo arloko araudiaren eta harekin bat datozen beste arau batzuen araberako erreklamazio-liburu edo erreklamazio-orririk ez izatea. • Erabiltzaileek egindako erreklamazioak Udalari ez entregatzea. Kontratuaren balio zenbatetsiaren % 1,5aren zenbatekoa, kasu hauetan: • Eskainitako epean zerbitzua ematen ez hastea, non eta ez den kontratua suntsiaraztea erabakitzen. • Ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten ibilgailuak atxikitzea zerbitzuari. • Baimendutakoak ez diren tarifak kobratzea. • Zerbitzua erabat etetea, bidezko arrazoirik gabe. • Ibilgailuaren gidariak gaitasun profesionala edo titulu gaitzailea ez izatea. • Eskatutako aseguru-polizak ez kontratatzea edo horien ordainketan egunean ez izatea. Ez-betetzeak irauten duen bitartean kontratua ez etetea aukeratzen badu ere, Orioko Udalak edozein unetan erabaki ahal izango du kontratua suntsiaraztea, arestian aipatutako ondorioekin. Zigorrak kontratuaren prezioaren gainean ordainduko dira, behin Udalak erreklamazioa aurkeztuta.	*cumulativo, las siguientes cantidades:* *Una cantidad equivalente al 1% del valor estimado del contrato, en los siguientes supuestos:* • *Por interrumpir parcialmente la prestación del servicio sin causa justificada y el incumplimiento de las obligaciones contractuales esenciales recogidas en el presente Pliego.* • *Por no respetar los horarios establecidos.* • *Por no disponer de libros u hojas de reclamaciones de acuerdo con la normativa en materia de consumo y otras normas concordantes.* • *Por no entregar al ayuntamiento las reclamaciones efectuadas por los usuarios.* *Una cantidad equivalente al 1,5% del valor estimado del contrato, en los siguientes supuestos:* • *Por no iniciar la prestación del servicio en el plazo ofertado, cuando no se opte por la resolución.* • *Por adscribir al servicio vehículos que no cumplan los requisitos establecidos.* • *Por el cobro de tarifas distintas de las autorizadas.* • *Por interrumpir totalmente la prestación del servicio sin causa justificada.* • *Por la falta de capacitación profesional o de título habilitante del conductor del vehículo.* • *No tener concertadas o no estar al corriente de pago de las pólizas de seguros exigidos.* *Incluso en el supuesto de opción por la continuación en la ejecución del contrato, mientras*

Nolanahi ere, kontratua suntsiarazteko nahiz jarraitzeko aukerari dagokionez, Udalak bere kabuz erabaki ahal izango du zerbitzua behar den denboran jarraitzea, hirugarrenen bitartez, eta jarraipen horren kostua kontratistari jasanaraziko dio, izan daitezkeen kalte-ordainen eta klausula honetan aurreikusitako gainerako ondorioen kalterik gabe.	*dure el incumplimiento, en cualquier momento el Ayuntamiento de Orio podrá optar por la resolución con los efectos antes referidos.*
	Las penalidades se harán efectivas sobre el precio del contrato, siendo objeto de la correspondiente reclamación.
	En todo caso, tanto de opción por la resolución como por la continuación del contrato, el Ayuntamiento podrá decidir unilateralmente la continuación del servicio durante el tiempo que estime preciso, a través de terceros, repercutiendo el coste de dicha continuación en el contratista, sin perjuicio de las indemnizaciones de daños y perjuicios y demás efectos previstos en la presente Cláusula.
14.- KONTRATUA LAGATZEA	***14.- CESIÓN DEL CONTRATO***
Kontratutik datozen eskubide eta betebeharrak ezin izango zaizkio hirugarren bati laga, Orioko Udalak berariazko baimena eman ezean, eta betiere lagapen-hartzaileak Orioko Udalarekin kontratatzeko legezko baldintzak eta plegu honetan eskatutakoak betetzen baditu, kontratatzeko debekurik ez badu, kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzen badu eta plegu honetan eta bere eskaintzan jasotako baliabideak jartzeko obligazioa betetzeko konpromisoa hartzen badu. Hori guztia, lagatako prestazioari edo prestazioei dagokienez.	*Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato no podrán cederse a un tercero, salvo autorización expresa del Ayuntamiento de Orio, y siempre que el cesionario cumpla los requisitos legales y los exigidos en este Pliego para contratar con el Ayuntamiento de Orio, no esté incurso en prohibición de contratar, acredite su solvencia técnica o profesional y se comprometa a cumplir la obligación de adscripción de medios prevista en el presente Pliego y la adicional contenida en su oferta. Todo ello, en cuanto se refiera y/o corresponda a la prestación o prestaciones objeto de cesión.*
15.- AZPIKONTRATAZIOA	***15.- SUBCONTRATACIÓN***
Kontratuaren prestazioak ezin izango dira azpikontratatu, Orioko Udalak berariazko baimena eman ezean, eta betiere azpikontratatuak Orioko Udalarekin kontratatzeko legezko baldintzak eta plegu honetan eskatutakoak betetzen baditu, kontratatzeko debekurik ez badu, kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzen badu eta plegu honetan eta bere eskaintzan jasotako baliabideak jartzeko obligazioa betetzeko konpromisoa hartzen badu. Hori guztia, lagatako prestazioari edo prestazioei dagokienez.	*No se podrán subcontratar las prestaciones del contrato, salvo autorización expresa del Ayuntamiento de Orio, y siempre que el subcontratado cumpla los requisitos legales y los*

16.- INBERTSIOAREN ARDURA Kontratistaren betebeharra izango da kontratua burutzeko egin behar diren lanen ondorioz hirugarrenei sortzen zaizkien kalte eta galera guztiak ordaintzea. Kontratista da eskaintzen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, eta baita egin beharrekoak ez egiteagatik, akatsengatik edo metodo desegokiengatik Orioko Udalari nahiz beste batzuei eragindako ondorioen erantzule ere. **17.- KONTRATUA BUKATZEA** Kontratua bukatzeko arrazoiak izango dira SPKLaren 211 artikuluan aurreikusitakoak, bai eta lege bereko 313 artikuluan bereziki zerbitzu-kontratuetarako jasotakoak. Kontratua bukatzeko berariazko arrazoia izango da administrazioarekin kontratatzeko betekizunak bat-batean galtzea (kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena galtzea eta kontratatzeko debekuren bat izatea), SPKLan jartzen duen moduan.	*exigidos en este Pliego para contratar con el Ayuntamiento de Orio, no esté incurso en prohibición de contratar, acredite su solvencia técnica o profesional y se comprometa a cumplir la obligación de adscripción de medios prevista en el presente Pliego y la adicional contenida en su oferta. Todo ello, en cuanto se refiera y/o corresponda a la prestación o prestaciones objeto de cesión.* ***16.- RESPONSABILIDAD DE LA INVERSIÓN*** *Será obligación del contratista indemnizar todos los daños y perjuicios que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato.* *El contratista será responsable de la calidad técnica de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para el Ayuntamiento de Orio o para terceros de las omisiones, errores y métodos inadecuados en la ejecución del contrato.* ***17.- RESOLUCIÓN DEL CONTRATO*** *Constituyen causas de resolución del contrato las establecidas en los artículos 211 de la LCSP, así como las recogidas en el artículo 313 de la misma Ley para los contratos de servicios en particular. Se establece como causa expresa de resolución del contrato la pérdida sobrevenida de los requisitos para contratar con la administración (exigencias de capacidad de la empresa contratista y no estar incurso en ninguna causa de prohibición de contratar) en los términos establecidos en la LCSP.*

I. ERANSKINA.
DEUC

ORIOko UDALA
Herriko plaza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

T. 943 83 03 46 F. 943 13 0260
idazkaritza@orio.eus orio.eus
CIF/IFK: P-2006600-G

ANEXO I.
DEUC

ORIOko UDALA
Herriko plaza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

T. 943 83 03 46 F. 943 13 0260
idazkaritza@orio.eus orio.eus
CIF/IFK: P-2006600-G

II. ERANSKINA

..... jaunak/andreak (adinez nagusia; NAN: .....) bere izenean edo ..... enpres(ar)en ordezkari gisa, honako helbide hau izendatzen du, lizitazio hau dela-eta edozein jakinarazpen jasotzeko; eta hori 39/2015 Legeak 41. artikuluan xedatutakoari jarraiki: Telefonoa(k): ..... Helbide elektronikoa: ..... Posta helbidea: ..... (Enpresak) – Enpres(ar)en IFK:

..... (Pertsona fisikoak) – Lizitatzailearen NAN:

...., 2024ko.....ren .....(e)an

Sinadura:

ORIOko UDALA
Herriko plaza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

T. 943 83 03 46 F. 943 13 0260
idazkaritza@orio.eus orio.eus
CIF/IFK: P-2006600-G

ANEXO II.

D./Dña. ....., mayor de edad, con DNI nº.....actuando en nombre propio o en representación de la(s) empresa(s) ....., mediante la presente designo a efectos de lo dispuesto en el artículo 41 de la Ley 39/2015, como medio preferente a efectos de cualquier notificación que el Ayuntamiento deba realizar con motivo de esta licitación, el siguiente número de teléfono y de dirección de correo electrónico: Teléfono(s): …….. Correo electrónico…….. Dirección postal:

…….. (Empresas) – NIF de la(s) enpresa(s) IFK:

…….. (Personas físicas) – DNI del licitador: .....

En ……..a ……de……..de 2024

Fdo:

ORIOko UDALA
Herriko plaza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

T. 943 83 03 46 F. 943 13 0260
idazkaritza@orio.eus orio.eus
CIF/IFK: P-2006600-G

III. ERANSKINA. ESKAINTZA

Lizitatzailearen datuak:
Izen-abizenak .....
Helbidea ..... Posta Kodea .....
Nortasun-agiria ..... Telefonoa .....
Ordezkariaren datuak (ordezkaririk egonez gero)
Izen-abizenak .....
Helbidea ..... Posta Kodea ..... Nortasun-agiria edo IFK (pertsona juridikoa bada): ..... Telefonoa .....
ORION TREN TURISTIKO BATEN ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAN KONTRATZEKO
Orioko Udalak egindako deialdiaren berri izan dut, eta hona hemen nire

ADIERAZPENA:

1.- Ezagutzen ditut administrazio-klausula partikularren eta teknikoen agiria, eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak, eta nire gain hartzen ditut eta ontzat ematen ditut oso-osorik.
2.- Betetzen ditut kontratuak burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebehar guztiak.
3.- Betetzen dut baldintza-agiri honetan zehazten diren gutxieneko kaudimen profesional eta teknikoa, zehazten diren prestazioak egiteko erabiliko den makineria, materiala eta talde teknikoa dudalako.
4.- Era berean, beteko dut lanaren zein zergen arloan legeak dioena edo araututa dagoena.
5.- Eskaintza honi dagokionez, ondorengo kopuruetan betetzea proposatzen dut:

PREZIOA BEZik gabe. Eskaintzak ezingo du 32.000 euroak gainditu.	……..euro
BEZ% 10	……..euro

…….-(e)n, 2024ko ..... Sinadura:

ORIOko UDALA
Herriko plaza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

T. 943 83 03 46 F. 943 13 0260
idazkaritza@orio.eus orio.eus
CIF/IFK: P-2006600-G

ANEXO III. PROPUESTA

D....., con domicilio en ..... CP....., D.N.I. nº....., teléfono ..... .en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de ....., con domicilio en ....., teléfono ....., y D.N.I. nº.....), enterado/a del procedimiento convocado por el Ayuntamiento de Orio para la CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE UN TREN TURÍSTICO EN ORIO.

DECLARO

1º. Que conozco los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.
2º.- Que cumplo con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para la ejecución del contrato.
3º Que reúno la solvencia profesional y técnica mínima exigida en este Pliego, por disponer de la maquinaria, material y equipo técnico necesario para realizar las prestaciones especificadas.
4º.- Que asimismo me obligo al cumplimiento de lo legislado o reglamentado en materia laboral y tributaria.
5º.- Que en relación con la prestación de la presente oferta, propone su realización, en la CIFRA.

PRECIO IVA excluido (la cantidad ofertada no podrá superar la cifra de 32.000 euros.	……..euros
IVA% 10	……..euros

En ..... a ..... de ..... de 2024

Fdo:

ORIOko UDALA
Herriko plaza, 1
20810 Orio (Gipuzkoa)

T. 943 83 03 46 F. 943 13 0260
idazkaritza@orio.eus orio.eus
CIF/IFK: P-2006600-G